

Hernaniko kronika

TOKIKOM 2014ko urtarrilaren 23a, osteguna ::: 4.622 zk. ::: www.kronika.net

SAGAR LASTERRA OTSAILAREN 22AN

Sagardoaren lasterketan, izen ematea

Ia bederatzi kilometroko ibilbidea izango da, Hernaniko sagardotegietatik barrena. Otsailaren 22an jokatu da, 11:00etan, arraun elkartetik aterata. Aurrez izena emateko epea zabalik dago www.kirolprobak.com web orrian; egunean bertan ere, izango da aukera.

SAGARDOAREN lurraldean barrena egiten den lasterketarako prest dago guztia. Sagar Lasterraren 8garren edizioa jokatu da datorren otsailaren 22an. 8 kilometro eta 900 metro izango dituzte aurretik partehartzaileek. 11:00etan hasiko da lasterketa, Hernaniko arraun elkartean eta sagardotegi gehien dituen auzoan barrena egingo dute korri, sagasti eta paraje ederren artean; helmuga Kiroldegiko sarrera izango da. Atletismo taldeak antolatzen du lasterketa, eta tiradizo haundiagoa du urteko urtera: 300dik gora lagun espero dira, aurten ere. Txotx denboraldiaren barruan antolatzen da proba eta kirola eta festa uztartzen ditu, egun haundi honek.

Izen ematea, zabalik
Proban parte hartu nahi dute-



300dik gora partehartzaile espero dira aurten ere.

nek zabalik dute izena emateko epea. Aurrez, internet bidez eman behar da www.kirolprobak.com orrian;

txip horiaren prezioa 8 eurokoa da; eta txuriarena, 10 eurokoa. Egunean bertan ere, izango da aukera. Lasterketa

hasi aurretik izango da izena emateko tartea; kasu honetan, txip horia eta txuriaren prezioa 15 eurokoa izango da. ||

NATZA - HITZALDIA GAUR FISKALITATEARI BURUZ

Itziar Miner: «Zerga sistema da herri bat antolatzekeko tresna garrantzitsuenetakoa»

Itziar Minerrek hitz egingo du gaur, 19:30etan, Udaletxeko Areto Nagusian.

JOAN den astean atzeratu egin zen hitzaldia, eta gaur izango da, zerga sistema eta fiskalitateari buruz. Itziar Miner ereñotzuarraren ustez, zerga sistema sekulako tresna da herri bat antolatzekeko, «tresna garrantzitsunetakoa», hain zuzen; baina nola

funtzionatzen du zerga sistemak? Zer da fiskalitatea? Herritar bakoitzak urtero ordaindu behar dituen zergak zeren arabera jartzen dira? Eta zeren arabera jarri behar lirake?

Itziar Minerrek badaki zerbait kontu horiei buruz, hain

zuzen ere, bera baita Gipuzkoako Diputazioko Zerga eta Finantza Politikako zuzendaria. Minerrek Kronikari azaldu dionez, «gehiago daukan gehiago ordaindu behar du, eta gutxiago daukanak gutxiago...» hori da berak eraiki nahi lukeen eredua,

«eredu justu bat, eta baliabide egonkorrak ekarriko dituen euskal gizartearentzat».

Natzak antolatua
Hernaniko Natza elkarteak antolatu du gaurko hitzaldia, eta 19:30etan izango da, Udaletxeko Areto Nagusian. ||

❖ SANTA AGEDA

Entsaioa bihar, Ereñotzun

Santa Agedako entsaioetarako fetxak zehaztu dituzte Ereñotzun. Bi entsaio egingo dituzte: aurrenekoa bihar, eta bestea urtarrilaren 31n. Ur Mian izango dira biak, 20:30etan. ||

❖ GAZTE LOKALAK

Bizilagun guraso eta herritarrekin saioa, gaur

Udalak martxan jarri du Gazte Lokalen inguruko parte hartze prozesua. Bigarren bilera gaur izango da, bizilagun, guraso eta herritarrekin. Biterin, 18:30etan. ||

❖ HIRIGINTZA BATZORDEA

Bi puntu, aztergai

Hirigintza Batzordea deitu dute gaur, 17:00etan, Udaleko bilera gelan. Aktaz gain, bi puntu izango dituzte aztergai: Arau Subsidiarioetako puntu bat eta lizentzia eskaera bat. ||

❖ EPA-HHI

Matrikulazioa, zabalik

Matrikulazioa zabalik dago EPA-HHI ikastetxean, helduei zuzenduta. Graduatua ateratzeko aukera, eta ingelese eta euskera, eta informatika ikasteko aukera jarri dute. Matrikula urtarrilaren 31ra bitarte egin behar da, astelehenetik ostiralerara, 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Telefonoa: 943 33 53 18. ||

❖ DYA

Sorospen eta sorosle ikastaroan, izen ematea

Hernanin sorospen eta sorosle ikastaroa antolatu du DYAk, otsailaren 3an. Hiru astekoa da, eta 19:00etatik 21:00etara emango da Inmakuladan. Kostea 100 eurokoa da. Izena emateko: 943 46 46 22. ||

AKELENEA
Erregetgia - XIX Mendeko Sagardotegian

Asteburuetan menu berezia
23 €-tan

3 sarrera + 2.a aukeran
arraia edo haragia

postrea aukeran
ogia + urteko ardoa

Koldo eta Ana
Ondo pasa auzoko festetan!

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

tripontzi
Sabemos castellano

ARRAÏN
FREIXOATREKIN
EGITEN DUGU LAN!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI
943 555 724

LARRE-GAÏN
TOLARE SAGARDOTEGIA

AUTOBUS ZERBITZUA

BIHAR 20:45tan Biteritik
LARUNBATA 13:30 eta 20:45tan Biteritik

943 55 58 46
616 28 78 67

EREÑOTZU - HERNANI

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ FARMAZIAK ● Egunez: ● Castilla Urbietan 7 - 943 552941 ● Gauez: ● Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA ● Gaur Ez da aldaketarik izango. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta zaparradak ugariak izango dira. Elurra 1.000 metrora egingo du. Min.7° / Max.11°.
● Bihar Berriz ere euria izango da protagonista, eta arratsaldean, baliteke etengabe botatzea. Ipar-mendebaldeko haizeak zakar joko du. Min.7° / Max.11°.
(euskalmet)

EAJ-H1 - PRENTSA OHARRA

«Herritarrek in bildu nahi dugu, Udalaren gestioa baloratzeko»

EAJ eta H1 alderdiek bilerak egin nahi dituzte herritarrek in, Udalaren gestioari buruz. Lehenengoa, urtarrilaren 25ean, Antzian.

HERNANIKO EAJ eta H1 alderdiek herritarrek in bildu nahi dute, Hernaniko Udalaren gestioari buruz hitz egiteko. Sei bilera inguru egin nahi dira, auzoka edo zonaldaka, larunbat goizetan.

Herritarrak txandaka joan daitezke, eta ordenean hartuko dituzte alderdietako ordezkariak. Lehendabiziko bilera Antzian egingo dute, urtarrilaren 25ean, eta bertara deituak daude Antziola eta inguruetako bizilagunak.

«Zuzenean jakin nahi dugu herritarren iritzia, eta gure ildoak azaldu»

Funtsean jakin nahi dutena da herritarrek zer pentsatzen duten Udalaren gestioari buruz. «Zuzenean jakin nahi dugu herritarrek zer pentsatzen duten Udalaren gestioa-

Hernaniko Auzo Elkarteen lokaletan egin nahi dituzte bilerak, eta herretarako deika ari dira elkarteetara.

10:30etatik 13:30etara egongo dira, eta herritarrek txandaka joan ahal izango dute beraien iritzia ematera.

ri buruz, zer aldatuko luke ten, beren iritziz zeri dedikatu beharko litzaiokeen arreta haundiagoa... EAJ eta H1en lan ildoak zein diren ere azaldu nahi diegu herritarrei». Herritar guztiei zabalik

daude bilera horiek, eta modu informalean egingo dituzte. «Aportatu nahi duten herrianiar guztiei zuzendutako bilerak dira. Irekiak dira, eta ordutegi horretan azaltzen diren guztiak atendituko ditugu, modu informalean».

2014 urtean zehar egingo dira bilerak

Guztira sei bilera inguru egin nahi dituzte, eta auzo elkarten lokaletan egiten saiatuko dira. Herretarako harremantetan jarriko dira elkarteetako arduradunekin, euren lokalak erabili ditzaketen jakiteko. Larunbat goizetan egin nahi dira, hilaren 25ean hasita, eta goizeko 10:30etatik 13:30etara egongo dira.

Lehendabiziko bilera, Antziolako Auzo Elkartean, urtarrilaren 25ean. ■

☞ Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

GURE ERABAKIAK, GURE ESKUBIDEAK!

18 urteko gazte bat naiz. Ikaslea. Gurasoen etxean bizi naiz. Mundu guztiak bezala, etorkizunerako asmo nagusietako bat lana aurkitzea dut, ikasketak bukatu ondoren. Baina, gaur egungo egoera ikusirik, argi dago ez dudala etorkizunik izango lan munduan (edo oso zaila behintzat). Gazteriak pairatzen dituen prekaritatea eta lan-aukera eza, ez dira kontu berriak, baina krisian gaude netik larritu egin dira. Milaka gazte joan behar izan dute gainera, Euskal Herriatik kanpora lan bila.

Lan munduko etorkizun latz honi, etxebizitzaren egoera gehitu behar zaio. Lanik ezean, etxebizitzarik ez dut lortuko. Baina horrez gain, etxebizitza bat lortzeko ditugun zailtasunak, gurasoen etxean bizitzera behartuko naute, milaka gazte bezala.

Zer egin dezakegu? Guztion arteko eztabaidaren bitartez, irtenbide egokienak bilatu eta hauek borrokatu.

Horretarako, EUSKAL HE-

RRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA sortu nahi dugu. Gure irtenbide bakarra batu eta borrokatzea da!

Eta Hernanin? Lehen parada urtarrilaren 25ean 11:30etan Biterin egingo den Gutun Sozialaren aurkezpena dugu.

Gure etorkizuna jokoan dagoelako. Alternatiba bat beharrezkoa dugulako! Denon artean egingo dugu!

Axier Mendizabal Goñi

ESKUBIDE SOZIALEN KARTA: ZERBITZU PUBLIKOEN DEFENTSA

Gizarte orekatu eta bidezko baten bidean zerbitzu publiko zabalak eta unibertsalak ezinbesteko zutabeak dira.

Ez bada bermatzen hezkuntza sistema publiko bat, ez bada herritar guztien formakuntzaren eskubidea bermatzen, herritar askok etorkizunerako ateak itxiak topatuko dituzte, bazterketara bideratuak izango dira.

Osasun sistema publiko eta unibertsalik gabe bizi kalitate duina izateko eskubidea kolokan jartzen da. Osasunaren pribatizazio nahia herritarren osasunaren aurkako eraso zuzena da.

Uste dugu oinarritzko behar batzuk estaltzeko interes publikoa pribatuaren gainetik jarri beharra dagoela: alokairuzko etxebizitza politikan, argindarra edo kalefakzioa ziurtatzeko...

Iritsi da euskal jendarteak komunitate anitz, inklusiboa, bidezkoa eta solidarioa erakitzeko garaia. Bide horretan Euskal Herriko Eskubide Sozialen karta nahi dugu. Aldarrikapen guztien sintesia izan dadin, aldarrikapen guztientzako lan tresna izan dadin. Eragile asko horretan ari dira, herritar anitz biltzen ari gara bidean, baina zuen indarra, denon indarra behar dugu aurrera egiteko. Lehen urratsa larunbatean egingo dugu, urtarrilaren 25ean, Biteri kultur etxean goizeko 11:30etan.

Mikel Arrieta Iraola

ERREMONTEA

Punta-puntako erremontistak gaurko estelarrean, tartean, Barrenetxea IVa

Urrizarekin jokatu du Barrenetxeak, Uterga eta San Miguelen kontra. Jaialdia bukatuta, urteko erremontista onenak sarituko dituzte.

GOI mailako jaialdia antolatu du gaur Oriamendi 2010 enpresak. Momentu honetako lau erremontista onenek neuruko dituzte indarrak, tartean, Barrenetxea IVak. Urriza izango du lagun herrianiarrak, eta aurrean, Uterga eta San Miguel. Joko ona izango da gaur Galarretan, kalitatezko erremonte jaialdia. 16:00etan hasiko da, eta gainerako hiru partidua izango dira: Ezkurra II-Larrañaga eta Matxin VI-Laba-

ka; Ezkurra-Endika/Juaristi-Ion; eta Etxeberría IV-Zubiri/Etxabe II-Olazar.

Urrezko erremonte gala, jaialdia bukatuta

Jaialdiko azkeneko partidua bukatuta, urrezko erremonte galaren bigarren edizioa hasiko da. A eta B taldeko erremontistak onenei emango zaie saria, eta 2013ko erremontista onenari urrezko erremonte emango zaio. ■

◆ MENDIRIZ MENDI

Eskiatzera joan nahi dutenek gaur dute izena emateko azken eguna

Cauteretsera iteera antolatu du Mendiriz Mendik asteburuan. Iraupen eskia, eski alpinoa eta raketak egiteko aukera izango da bertan. Lau prezio jarri dituzte, adinaren eta bazkietzaren arabera: 50, 60, 65 eta 75 euro. Izena emateko azken eguna gaur da, elkarte (Iturregi Plaza), 20:00etatik 21:00etara. 20 euro aurreratu behar dira. ■

◆ ERAKUSKETA

Ruiz de Eguinoren lanak, Andoainen

Erakusketa jarri du Andoingo Bastero kulturunean Aitor Ruiz de Eguinok. *Tururu* izena du erakusketak eta aluminiozko 16 eskultura eta aluminioz margotutako 40 margolan jarri ditu. Otsailaren 28ra arte egongo da erakusketa, astez, 18:00etatik 20:00etara; eta larunbatetan, 10:30etatik 13:30etara eta 18:00etatik 20:30etara. ■

◆ TXANTXANGORRI

Mus txapelketan eta ehiza irteeran izena emateko azken eguna, gaur

Txantxangorri mus txapelketa antolatu dute urtarrilaren 28an eta izena emateko zerrenda elkarte dago. Bestalde, Zanbrana ehiza jardunaldietara joateko aukera ere jarri dute; otsailaren 15ean, 22an, martxoaren 1ean eta 8an izango dira. Bi kasuetarako, izena emateko azken eguna gaur da. ■

◆ GALDUTAKOAK

Nahastuta, beste txamarra bat eman dute

Mutil batek utzitako txamarra baten bila joan ziren igandean Aralar tabernara. Konfundituta, beste txamarra bat eman zioten, eta eskatu dute, mesedez itzultzeko. ■

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Pixua salgai zentroan, 4 gela, bi komun, sukaldea, egongela-jangela, 100m2. Trastelekua eta garajearekin. Erdigunean, altua eta eguzkitsua. Deitu: 699 49 22 35

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

ñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)